

Zarataren Erreginek agur esan dute

Irailaren 27an, Zuloak taldeak bere azken kontzertua eskaini zuen Donostiako Gazteszenan. Urtebete joan da Fermin Muguruzak zuzendutako izen bereko filma aurkeztu zenetik. Gauza asko gertatu da geroztik: filma aurkeztuz batera 64 kontzertu eman dituzte munduan barrena, Amerikan, Europan eta Asian. Haiek utzitako “zuloa” bete beharra dago orain.

| MYRIAM GARZIA |

JAUN-ANDREOK, zuekin Zarataren Erreginak. Horrela aurkeztu zituzten Runaways taldeko kideak, Japoniara heldu zirenean, 1977an. Cherie Currie abeslariak 18 urte zituen, eta Joan Jett gitarrar-jotzaileak 19. *Queens of Noise* haien abestietako bat da, *Cherri Bomb* eta *Born to be bad* abestiak irratit formuletan etengabe aditzen ziren garaikoa.

Zuloak taldeak kontzertu berezia eskaini zuen irailean, Bilboko Arteria antzokian, Izar and Star Herri Irratiak antolatutako kontzertu-sorta medio. Zuloakeko neskek Runaways talde mitikoaren abestiak bertsiotu zituzten orduko hartan, irailaren 27ko azken kontzertuan bezala. *Cherri bomb* edo Joan Jetten *I Love Rock and roll* ezin hobeto hartu zituen publikoak. Baina talde bien artean ez dago parekotasunik, nahiz eta biak emakume gazteez osatuta egon. Egun XXI. mendean gaude eta Zuloak ez dira euskal Runaways-ak, Kalifornian 70eko hamarkadan emakume nerabez osaturiko taldea. Zuloakekoak ere gazteak dira, bai, Ainhoa Unzuetak 19 urte zituen filma grabatu zenean. Zuloak taldeak iraultza txiki bat eragin du euskal musika eszenan. Haiek agertu arte, ez zegoen horrelakorik eta hemendik aurrera zaila izango da antzeko beste ezer ikustea. Jarrera, probokazioa, harrotasuna, kulero gorriak erakusteko lotsagabekeria, emakumeek gogor astindutako musika tresnak...

Kim Fowley ekoizle amerikarrak sortu zuen Runaways taldea 1975ean, Fermin Muguruzak Zuloak 2012an. Ohikoa dira musika industrian



antzeko esperimentuak. Handik eta hemendik hartutako emakume musikariak batu eta laborategiko talde bat sortu, batez ere negozio ona izan direlako beti emakumez osatutako taldeak. Berritasuna nagusi.

Zuloak taldearen kasua ere horixe izan da, zenbait taldetatik propio erakarrirako musikariak baitira: Tania de Sousa The Dispositives taldeko abeslaria da, Ainhoa Unzueta Itzalen taldean aritzen zen gitarrar-jotzaile, Naiara Goikoetxea The Sfinders taldeko bateria da, Usua de la Fuente Ursula Strong Las Culebras taldeko bateria zen, eta Izaskun Muruaga Lights of Eden taldeko abeslaria. Denak ezagunak egun, Zuloak taldeko partaide izateagatik.

“Ni ere Zuloak izan nintekeen” aldarrizkatzen du Vulpes-eko abeslariak Zuloak filman. Emakume asko izan baitira Zuloak azken urte honetan. Izan ere, Fermin Muguruzak zuzendutako filmak gorazarre egiten die euskal emakumezko musikariei: Anari, Aiora Renteria (Zea Mays), Marieder Iriart (The Sparteens), Maite Arroitauregi (Mursego), Aida Torres (Jupiter Jon), Afrika... Euskal Herriko hainbat emakumeri egin dio elkarrizketa Arrate Rodriguezek, Zuloak-en muinaren sortzaileak, bere

kamera aldean. Filmean ageri diren protagonista gehienak emakumezko musikariak dira. Ez da ohiko gauza, eszenatokietan, albistegi-tan edota musikako hainbat arlotan ari direnak gzonezkoak izaten baitira ia beti. Kafe Antzokiko Jota teknikariak filmean aipatzen duen

moduan, areto honetako eszenatokitik igarotzen diren musikarien %95 gizonetzkoak dira. Film honetan aldiz, ageri diren musikarien %95 emakumezkoak dira.

Uste baino emakume gehiago euskal rockean

Alemania, Mexiko, Argentina, Lituania, Kuba, Polonia eta Japonia, besteak beste, izan dira Zuloak taldeak egindako biran helmuga. Filma Donostiako Zinemaldian aurkeztu eta gero, Tania de Sousa (ahotsa), Ainhoa Unzueta (gitarra) eta Usua de la Fuente (bateria) izan dira Zuloak, bira handi eta luze honetan.

Bestalde, bakoitzak bere proiektuekin jarraitu dute Zuloakeko neskek. Taniak eta bere taldeak, The Dispositives, disko berria argitaratu dute. Usuak eta Koldo Soret-ek (Surfin Kaos), Niña Coyote y Chico Tornado taldea sortu dute. Irailaren 27an Gazteszenan ikusi genuenez, bolumena eta indarra dira nagusi proiektu berri honetan.



Japoniatik bueltan harrapatu dugu Ainhoa Unzueta, Zuloak taldeko gitarra-jotzailea. Egun 21 urte ditu, baina 14 urte zituela hartu zuen gitarra elektrikoa lehen aldiz, gitarra klasikoko ikasketak egin ostean. Gaztea da, bai, baina urteak daramatza gitarra jotzen. Zuloak proiektua alde batera utzita, ikasteari, konposatzeari ekin dio Ainhoak. Hainbat proiektu ditu. “Asko ikasi dugu, egia da, baina aurrera begira gaudе. Proiektu baten amaiera da, baina honek beste hainbat proiektu sortu eta indartu ditu”. Bi urteren buruan bere diskoa egin nahi luke. “Izugarrizko esperientzia izan da bira, oso ondo hartu gaituzte leku guztietan”.

Ikasi beharreko ia guztia dagoeneko ikasi ote duen galdetu diogu: “Oraindik hainbat gauza

dago egiteke, gauzek bere denbora behar dute”. Hala da, rock and rollak Zuloak ekarri zuen, ekarriko ditu beste hainbat gauza ere. Hil dira Zuloak! Gora Zuloak! ■



EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZULOAK
HERRIAN JAI